

Arrasate

P R E S S

ARRASATE • ARAMAIO / Egubakoitza / 2004ko otsailaren 13a / 661. zenbakia




**SAN JOSEPERI ESPLOTAZIO
BAIMENA LUZATZEAR**
ZENBAIT TALDEK AURKAKO SALAKETAK EGIN DITUZTE

ORAIN ETA HEMEN: 0-2 URTEKO HEZKUNTZA/8 • KIROLA: OINTXEK BOSTETIK BOST/10

EDERTASUN GIDA/24



ARRASATE HERRI ESKOLA
2-12 urte bitartekoentzat



ARRASATE-ARETXABAETA BHI
12-21 urte bitartekoentzat

2004-2005 IKASTURTERAKO MATRIKULA EPEA ZABALIK Otsailaren 16tik 27ra arte

INFORMAZIO BILERA:
BEDOÑABEN
(SAN ANDRES AUZOAN),
OTSAILAREN 17an,
18:00etan.

Telefonia: 943 79 77 74 – 943 79 20 69
e-posta: arrasateesk@goieskola.net
012127aa@hezkuntza.net
Ordutegia: 09:00etatik 18:00etara.



Debagoienerako Euskal Eskola Publikoa

GOIESKOLA

– Integratzailea: euskal kultura
garatzen dugu, eta beste
kulturak era egokian
geureganatu eta garatzen ditugu.

Pertsonen arteko harremanak
bultzatzen ditugu.

– Sortzailea eta autonomia.
– Ikastetxeen arteko loturak
sustatzen ditugu.

INFORMAZIO BILERA,
MUSAKOLAKO INSTITUTUAN,
BEHEKO ERAIKINEAN,
OTSAILAREN 17an,
18:30ean.

Telefonia: 943 79 44 47
e-posta: iarrasate@euskalnet.net
Ordutegia: 09:00etatik 17:00etara



baikara
Gipuzkoako Ikasleen
Gurasoen Federazioa

ILUNTZEAN

Andoni Aizpuru solaskide


Eguenean, otsailaren 19an
21:15ean

Aurkezlea:
Aintzane Gardoki



Goiena Telebista


**Ikusiko
duzu!**




KALEINKESTA/ Ze pentsetan jatzu telebisiño kataiek kontraprogramaziñue egittie?




LARRAITX AZKONA
Langillie



UNAI VILA
Ikaslie



ANTXON ZUMALDE
Langillie



GORKA ZABALETA
Ikaslie



ANE LEIBAR
Langillie



EDURNE LEIBAR
Langillie

Egixe esatiarren, telebisiñue gutxi ikusten dot, baiñe ez jat ondo pentsetan. Gauza bat ikusi biher dozula pensau, eta azkeneko momentuen aldatu egitten daue; ez leukie egin biher.

Telebisiño katai danen helburue dirue irabaztie da, eta horregaittik egitten daue kontraprogramaziñue. Nik txarto ikusten dot, aldaketak abixau barik egitten dittuelako.


Argi dau konpetentzia haundixe dauela eta bako-txa libre dala gure dauena egitteko. Espaiñako gober-nue hori reguletan hasten bada, gauzak aldrebestu baiño ez daue egingo.

Neuk ez dot ondo ikusten. Nik pentsetan dot telebisiño kataiek programaziñue errespetau egin biherko leukiela, eta ez azken momentuen aldaketak egin. Baiñe ez dauket oso argi.

Alde batetik, penagarrixe da gaur egun telebisiño kataiek emuten dauena. Eta, hori gutxi balitz, euren programaziñue errespetau be ez daue egitten. Ez jat bape ondo pentsetan.

Ez jat ondo pentsetan. Telebisiño kataiek euren interesak defendiduteko egingo daue kontraprogramaziñue, baiñe geuk be konforme ez gauzela esateko eskubidie daukogu.

TXALOAKETATXISTUAK



TXISTUAK PIBOTAK SOBERAN DAUDE Aspaldi, Otalora kaleko 1. zenbakiaren ondoan zaborra uzteko pibotak ipini zituzten. Kontua da orain dela pare bat urte errepidearen beste aldean zaborraren-tzako edukiontzia ipini zituztela. Irakurle baten esanetan, pibot horiek dagoeneko ez dute inolako zentzurik, eta Udalar horiek kentzeko eskatzen dio.

ETABARRUAN...

ORAIN ETA HEMEN /8

Adierazpen libreko guneak

Kartelak-eta kalean ipintzeko, panelak ipiniko ditu Udalak herriko zenbait puntutan.

KULTURA /14

Aitor Lajarin margolaria

Aitor Lajarin margolariari elkarrizketa egin diogu. Arregi galerian erakus-keta ipini du.

ZAHARRAK /17

Gimnasia mentala

Uribarri elkarte-an, martitzeno, gimnasia mentaleko ikastaroa egiten dute. Han izan ginen.

ASTEKO DATUA

5

PANEL IPINIKO DITUZTE HORMA-IRUDIENAKO

Udalak kalean horma-irudiak ipintzea galarazi du. Eta horren ordez, horma-irudiendako panelak ipini gura ditu. Lehenengo fasean, herri guztian, bost panel ipiniko dituzte.

BESTEKEESANA

Gernikako barauaren helburua Justizia Administrazioan euskararen normalizazioa eskatzea da, eta bi hilabete iraungo du (otsailaren 28a arte). Hainbat talde ari dira parte hartzen: ELA, LAB, EHNE, Batasuna. (...) Gure eskualdeko egoera konkretua ere ez da hobe; Bergarako epaitegian diharduten epaile guzti-guztiak erdaldunak dira. Egoera negargarri horretan argi ikusten dut herritarrok gure hizkuntza defendatu behar dugula, eta horretarako, Euskal Herrian Euskaraz-ek antolatu duen manifestazio nazionalen parte hartzeari ezinbesteko derizot. Otsailaren 28an, zapatuan, egingo dira Bergaran eta Gernikan, eta leloa berbera izango da: *Gure eskubidea delako, epaitegietan euskaraz*”

GONTZAL LANDA
'GARA'/04-02-04

HERRITARRENBERBAK/ Oihan Zubizarreta



Mozorroak

Aratusteak datoz laster, ez garenaz, izan nahi dugunaz edo gehien gorrotatzen dugunaz mozorrotzeko aitzakia. Ordu batzuek, garena izateari utzi nahiko diogu; mozorroaren babespean amestu, antzeztu, ahaztu, gogoratu eta ondo pasatzea.

Eta oraindik ez dakit zer egin nire mozorroaz. Naizena izateari utziko nioke, naizena zer den baneki...

Ingurura begiratzen dut, aktualitateko azken berriei erreparatzen diet... politikari, kirolari, gizarteari, munduari, kulturari, ekonomiari... Mozorro bitxiak ikusi ditut bazter guztietan; mamu dezente, hainbat pailazo, domatzaile batzuk, txakur andana, lapur ugari eta dozenaka sorgin. Aratusteetan kalean ikusten ditut; gezurtiak, ankerrak, lotsagabeak, faltuak, inozoak... pertsona zintzo gutxi ikusi dut inguruan. Kalean ohikoak diren

mozorroak ere erakusgai daude; poliziak, diktadoreak, gaixoak, politikariak, bortxatzaileak, eskaleak, militarrek...

Agerikoa da batzuek ez dutela mozorrorik beharko. Eta artean, nik ez dakit oraindik zertaz mozorrotu. Esaten dute norbera zer den jakiteko

“Batzuek ez dute mozorrorik behar. Esaten dute norbera zer den jakiteko ispiluan begiratu beharra dagoela”

ispiluan begiratu beharra dagoela. Baina izutzen nau ispilu aurrean jarri eta horren hedatuta dauden mozorro horietako bat ikusteak. Pentsako berriei begira jarraitu dut mozorro hobeak bilatu guran, baina gutxi batzuk

aurkitu ditut; sortzaileak, duinak, eskuzabalak, ameslariak, borrokalaria, kemen-tsuak... Ez dakit luzez iraungo duten mozorro horiek, baina ni aulkitik jaiki eta ispilu aurrera mugitu orduko, egongo al da oraindik nire gustuko mozorrorik libre?

Naizena ezagutu gura nuke, nahi ez dudana jakiteko... Kalean ikusiko dugu elkar, nirekin edo izan nahi ez dudana horrekin.

Arrasate

Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE
Tel.: 943 71 25 11
Faxa: 943 71 23 89
Posta-e: arrasatepress@goiena.com

ZUZENDARIA
Iker Barandiaran

ERREDAKZIOA
Ubane Madera
Xabier Urzelai

MAKETAZIOA
Alex Azkarate

ZUZENTZAILA
Sergio Azkarate

PUBLIZITATEA
Natali Martinez
Imanol Elortza
Amaia Mundiñano

ADMINISTRAZIOA
Agurtzane Gainzarain
Ane Berezibar
Iratxe Bengoa

BANAKETA
Marta Leturia

LEGE-GORDAILUA
SS-1124/88

ISSN
0214-4654

TIRADA
7.350 ale

ARRASATE PRESS / TXIRRITOLA • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaurlaritzako
Kultura saila



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Arrasateko
Udala



Aramaioko
Udala

ASTEABIHITZETAN

Zerrajerako Consumekek izena aldatu behar

Valentziako Consum kooperatibak Eroski taldea uzteko erabakia hartu duela-eta, Zerrajerako Consumekek izena aldatu beharko du. Eroski taldeko supermerkatuek aurrerantzean ez dute Consum izena izango, eta ez dute izen horretako produkturik salduko.

Azken bederlatzi urteak batera egin dituzte bi enpresa horiek, baina orain, Valentziako Consumekek banatzea erabaki du. Banaketa dela-eta, Eroskik zabalkunderako zituen asmoak atzeratu egingo ditu.

Aldaketak anbulatorioan

Anbulatorioan obrak egingo dituztela-eta, aurrerantzean hainbat aldaketa izango dira. Lehenengo aldaketa da anbulatorioko kontsulta batzuk Eskualde Ospitalera eramango dituztela. Hain justu, hirugarren solairuan dauden kontsultak eramango dituzte Eskualde Ospitalera.

Zortzi kontsulta aldatuko dituzte lekuz: pediatria, barne medikuntza, erreumatologia, anestesia, endokrinologia, kardiologia, ginekologia eta odontologia kontsultak, hain zuzen. Anbulatorioko lanak amaitu arte kontsulta horiek Eskualde Ospitalean izango dira.

Musikeneren kontzertua Amaia Antzokian

Etorkizunean musikari handiak izango direnek kontzertu sinfonikoa eskaini zuten zapatuan Amaia Udal Antzokian. Izan ere, Musikene orkestra sinfonikoa izan zen Arrasaten. Musikene Euskal Herriko goi mailako musika ikasleek osatzen dute, eta gaur egun 250 musikari inguru daude taldean.

Musikeneren ikasleendako zapatuko kontzertua azterketa moduko bat izan zen. Kontzertuan, besteak beste, Ravel eta Beethovenen zenbait pieza jo zituzten.



'Euskal Herria aitortu, errespetatu'

Arrasateko ezker abertzaleak, lelo horrekin, salaketa ekitaldia egin zuten domeka arratsaldean Uarkapen. Hauteskundeetarako Espainiari ezetza aldarrikatuz 25.000 salaketa batu gura dituzte, 1.000 salaketa errepresio urte bakoitzeko. Salaketak Nazio Batuen Erakundera igorriko dituzte.



USTEAKUSTE/Iker Barandiaran

Iraganetik ikasi

Asteko irudiaren haritik, garrantzitsua da gure ondare historikoari eustea, posible bada behintzat. Aste honetan, polemika piztu da Laubideko aparkalekuak egiteko lan erraldoietan dabiltzan hondeagailuek Garibairen monolitoa bota dutelako. Ez da ezusteko ezbeharrak izan. Udalaren esanetan, monolitoaren egoera txarra zen, eta ezin

zen hartu eta beste toki batean ipini. Gauzak horrela, bat-batean monolitoa atera eta apurtu egin zuten. Hainbat herritar haserretu egin dira, Udalak aurretik jakinarazi ez duelako eta edonola herriko ondasun historiko bat galdu delako.

Behin baino gehiagotan kendu izan dituzte halako ondasun historikoak, baina gutxienezkoa deritzot aurre-

tik herritarrei jakinaraztea, behintzat, kendu aurretik, horien iritziez jabetzeko.

Bestalde, astean jakin dugu Zerrajerako erlojuaren eraikina bere horretan utziko dutela. Orain dela pare bat urte, Udalak eraikin hori ordenamenduz kanpo utzi zuen, eta iskanbila handia piztu zen. Zerrajera iraganeko zati garrantzitsua da eta merezi du horren oroimena gordetzea. Ea Museo Industrialak ere bultzatzen duten.

ASTEKOIRUDIA



UBANE MADERA

ZERRAJERAKO SARRERAKO ERAIKINA MONUMENTU IZENDATUKO DUTE

Zerrajerako sarrerako eraikina, hau da, erlojua duen Zerrajerako eraikina, monumentu izendatuko du Eusko Jaurlaritzak. Udalak gutun bat jaso du Jaurlaritzatik, eraikinaren gaineko informazioa eskatuz, monumentu izendatu eta Euskal Kultura Ondarearen Zerrenda Orokorrean sartzeko. Aipatu behar

rra dago orain dela bi urte Arrasateko Udalak ordenamenduz kanpo utzi zuela eraikin hori.

Pozgarria da halako berriak entzutea. Izan ere, Arrasateren izaera industrialean Zerrajerak garrantzia izan du, eta merezi du iraganeko halako oroimenak bizirik edo behintzat zutik gordetzea. /I.B.



Metal aroztegia eta PVC

Leihoak eta itxierak
Egur aroztegia

Leihoak
Ateak
Armairu enpotratuak
Armairu-fronteak
Mota guztietako zoruak
Lixatua eta bernizatua

Osagarriak

Neurrira egindako alfonbrak
Gortinak, mahaiak eta aulkiak

Erakusketa eta biltegia:
Kale txiki 3 behea (Musakola)
Tel. eta faxa: 943 77 11 20



UGARTE

Industria
hornidurak

San Andres auzoa 2. 5-6
Pab.
Tel.: 943-71 21 41
Faxa: 943 - 71 21 40



Pando
Errotuloak

Gipuzkoa etorbidea 6
(Legarre pabiloia)
Tel.-Fax: 943 79 79 70

Argidun kartelak

Ibilgailuak

Stand-ak

Itsasgarriak

Biniloa

Seinaleak

Lonak

Erliebedun hizkiak



Jende dezente elkartu zen osoko bilkuren aretoan *Asteleheneko Goienkaria*-ren aurkezpen ekitaldian; zenbait talderen, erakunderen eta alderdi politikoren ordezkariak ere baziren tartean.

KOMUNIKABIDEAK/ Astelehenetik aurrera aldizkari berria izango da ibarrean: 'Asteleheneko Goienkaria'

Astelehenean hasiko gara argitaratzen aldizkari berria: 'Asteleheneko Goienkaria'

ARRASATE PRESS

Etzidamu, astelehena, ikusiko du argia Goiena Kooperatibaren produktu berriak: *Asteleheneko Goienkaria*-k. 32 orritan, besteak beste, asteburuan gertatu dena eta astean gertatuko dena jasoko du sakon. Helburua da Goienaren orain arteko eskaintza osatzea.

Arrasaten joan den eguenean aurkeztu zuten Goiena Komunikazio Zerbitzuen aldizkari berria. Herriar dezente elkartu zen osoko bilkuren aretoan haren berri izateko eta *Asteleheneko Goienkaria*-ri babesa emateko. Tartean, zenbait elkartetako kideak eta alderdi politikoen ordezkariak izan ziren.

EUSKALGINTZAREN TRESNA

Hiru lagunek aurkeztu zuten egitasmoa: Goienako presidente Estepan Plazaolak, Udaleko Kultura eta Euskara Sustapenerako zinegotzi Ines Aldaik eta AEDko presidente Joseba Ezpeletak.

Hala, lehenik eta behin Goienaren produktuen gaineko bideoa erakutsi zuten: ohiko aldizkariak, Interneteko webguneak (*Sustatu.com* eta *Goiena.net*), Arteman, irratia eta telebista. Horren ostean, mahaikideek *Asteleheneko Goienkaria*-ren onurak nabar-

Astelehenetan ere zeure etxean

Santamasetan argitaratu zuten *Asteleheneko Goienkaria*-ren zero zenbakia. Eta datorren astelehenetik aurrera, hilak 16, astelehenero izango dugu eskura. Hori bai, orain arteko produktuak ez bezala, ez da doakoa izango. Hala, bi modu izango dira eskuratzeko: kioskoan, 0,8 euroren truke edo urteko harpidetza egin eta 25 euroren truke etxean jaso ahal izango da, kioskoan erosita baino %20 merkeago. Eta AED elkarteko bazkideendako 10 euroko beharpena izango da; hala, 15 euroren truke jaso dezakete aldizkaria etxean.

Ohiko *Goienkaria*-rekiko desberdina izango da astelehenekoa: diseinu berri, erakargarri eta modernoa izango du, esaterako, eta argazkiei garrantzi berezia emango zaie. Hitz batean esanda, ikusgarriagoa izango da.

Oro har, gure ibarrean asteburuan gertatu dena eta hurrengo astean gertatu-

ko dena jasoko du, inork baino bizkorrago. Eta gainera, orain arte oso sakon landu izan ez diren ekimenen berri emango du luze eta zabal: eskola kirola, asteburuko kirol eta kultura ekitaldien kronikak, zerbitzu-informazioa (eskelak, intereseko telefonoak, lan-poltsa...), lehiaketak... Era berean, ibarreko zenbait erakunde, elkarte, talde, ikastetxe, enpresa eta abarrekin elkarlana bultzatzea da asmoa, erronka berriari aurre egiteko haien inplikazioa lortzeko.

Aldizkari berriak lantalde propioa izango du, baina harekin batera Goienako prentsako lantaldeak ere jardungo du, laguntzen.

Harpidetu gura duenak lau bide ditu: 902 36 38 51 telefonora deitu; 943 79 22 93 fax-zenbakia erabili; mezua bidali *asteleheneko@goiena.com* helbidera edo *www.goiena.net* webgunean dagoen fitxa bete.

mendu zituzten. AEDko presidente Joseba Ezpeletak azpimarratu zuen Goiena euskalgintzaren tresna bat dela, eta *Asteleheneko Goienkaria*-k euskarak aurrera egitea ahalbidetuko duela: "Euskararen esparruan aurrera ez egiteak atzera egitea dakar eta euskararen egoera hobetzeko, euskarak funtzioak galdutituen lekuetan berreskuratu egin behar ditu eta eduki ez duenetan berreskuratu".

Bestalde, Udaleko zinegotzi Ines Aldaik Goiena zoriiondu egin zuen aurkeztutako ekimen berriarengatik. Batez ere *Asteleheneko Goienkaria*-rekin Goienak autofinantzatzean egingo duen jauzia azpimarratu zuen. Honakoa esan zuen: "Autofinantzatzeko gura du enpresa sendotuta dagoela eta enpresak arrakasta duela".

GAINDITU BEHARREKO ERRONKA

Hain zuzen ere, autofinantzatu horren garrantzia aipatu zuen Goienako presidente Estepan Plazaolak. Zera esan zuen: "Erronka polita da eta nik uste dut gaitu dituzte beharrek. Guretzat oso inportantea da pauso hori. Astelehenean, orain arteko finantzatze bide zutabetan oinarritu da: diru laguntzetan eta publizitatean. Gure produktuak jasotzen dituzten herritarrek orainoz ez dute ekar-

"Proiektu honek euskarak aurrera egitea ahalbidetuko du"

JOSEBA EZPELETA

"Autofinantzatzeko esan gura du enpresa sendotuta dagoela"

INES ALDAI

"Esperantza handia daukat egitasmo honetan. Apustu hau gainditugoko dugu"

ESTEPAN PLAZAOLA

Zer iruditzen zaizu 'Asteleheneko Goienkaria'?



JON ARRIARAN
IBAI ARTEKO PRESIDENTEA

Oso proiektu interesgarria dela uste dut, euskararen sustapenerako, batez ere. Uste dut asteburuetan badagoela zer kontatu, eta hutsune hori *Asteleheneko Goienkaria*-k beteko du. Ondo, interesgarria.




ERRUKANE APERRIBAI
TOPAGUNEKO KIDEA

Oso ekimen interesgarria iruditu zait, eta beharrezkoa. Horrez gain, positiboa da *Asteleheneko Goienkaria*-z gain beste proiektu batzuk ere izatea. Euskararen esparrua zabaltzeko lagun-garri izango da.




OSKAR ELIZBURU
AEK-KO KIDEA

Egitasmo ederra dela uste dut, ordua zen astelehenetan horrelako produktu bat izateko. Beste kontu batzuen artean kirolak eta kultura landuko dituzte, eta euskaraz gehiago landu behar diren bi arlo dira.



XABIER ZUBIZARRETA
HERRI ANITZAKO KIDEA

Ekimen horrek poztasun handia eman dit. Ostiraletan jasotzen dugu *Goienkaria*, eta lantegietan ostiral arratsaldeetan jai hartzen hasi gara. Orain, esperantza daukat astelehenetan ere jai izateko.



JOSEBA UGALDE
EZKER BATUKO KIDEA

Zero zenbakia oso interesgarria iruditu zitzaidan, eta alderdiko elkarrean harpide egin gara. Informazioa azkar jasotzea oso garrantzitsua da. Ondo deritzot hartzaileek zerbaitek ordaindu behar izateari.



INES ALDAI
EAJ-KO KIDEA

Asteleheneko Goienkaria euskararen normalizazioarako beste tresna bat izango da, eta oso positiboa da hori. Kultura zinegotzia izanda ere, kirol orrietatik hasiko naiz irakurtzen. Harpide egiteko asmoa dut.



JOXE ETXEBERRIA
ARALARKO KIDEA

Kirol asko izango zuela uste nuen, baina argi utzi dute kulturak eta gizarte kontuek ere garrantzia izango dutela. Autofinantzatzea positiboa ikusten dut, jendeak zerbaitek ordaindu ongi dago.



JOSE MARI URIZAR
EA-KO KIDEA

Oraindik ez dut *Asteleheneko Goienkaria* ikusi, baina ziur produktu txukuna izango dela. Zenbat eta informazio gehiago, eta zenbat eta lehenago, askoz hobeto. Nik uste dut erantzuna izango duela.

penik egin eta ekarpen hori behar-beharrezkoa dugu. Esperantza handia daukat egitasmo honetan. Uste dut gaudituko dugula apustu hau eta emaitza onak lortuko ditugula".

Bukatzeko, *Goienkaria*-ko zuzendari Eneko Azkaratek


aldizkariak ekarriko duenaren gainean jardun zuten bereziki: "Helburua da asteburuan Debagoienean gertatzen dena sakon tratatzea, bai kultura aldetik, bai jai eta beste mota bateko ekitaldien aldetik eta baita kirolaren aldetik ere. Eta ez hori baka-

rrik. Asteak ekarriko duena aurreratuko dugu eta bestelako informazioa ere jasoko dugu. Edozelan ere, batik bat helburua da Debagoienean asteburuan gertatzen dena inork baino lehenago eta inork baino sakonago kontatzea".



XABIER URZELAI

Udaleko ordezkari Ines Aldai, AEDko ordezkari Joseba Ezeleta eta Goienako ordezkari Estepan Plazaola aurkezpenean.



U.M.

Zenbait alderditako eta taldetako ordezkariak eta harrobiko zenbait langile izan ziren.

Harrobiari lanerako baimena ez luzatzeko eskatu dute

U.M.

San Josepe harrobiaren esplotazioa beste bi urtez luzatzeko aukera aztertzen dabil Arrasateko Udala. Hori dela eta, EB, Aralar eta Zutik alderdiek eta Ekologistak Martxan taldeak harrobiaren egoera salatu dute.

Apirilean bukatu behar zitzaion San Josepe harrobiari esplotazio baimena, Udalarekin hala hitzartu zuen-eta lanean hasi zirenean, 1997an. Baina, orain, baimena beste bi urtez luzatzeko aukera aztertzen dabil Udala, harrobikoek eskatuta. Harrobikoek esanetan, ez dutelako bete Udalarekin hitzartutako esplotazio kopurua.

Luzapen hori oztapatzeko eta harrobiaren egoera salatzeko, EB, Aralar eta Zutik alderdiek eta Ekologistak Martxan taldeak prentsaurrekoa egin zuten herenegun, eguaztena. Harrobiko zenbait langile ere izan ziren, silikosiarengatik gaixorik daudenak.

SALAKETA DEZENTE

Hala, salatu zuten harrobiaren eskaera aztertu eta gero Udalak txosten bat eskatu ziola Ingurumen teknikariari. Eta teknikariaren txostenak erakusten duenaren arabera ez litzatekeela luzapenik egin behar. Txosten horrek, besteak beste, zera dio: asko jota 1.680.000 tona esplotatu behar zutela. Aldiz, harrobiak %23an gaudituko duela kopurua eta 2.065.629 tona esplotatu dituela. Gainera, harrobiaren eska-

era onartuz gero, 3.573.769 tona esplotatuko dituztela. Txosten beraren arabera, Udalarekin duten hitzarmenean zehaztutako esplotazio-mugak handitu egin dituzte harrobikoek. Horren ondorioz, harrobia ixterakoan gune hartarako Udalak zituen asmoak ezin izango dituzte egin proiektua aldatu ezean. Era berean, salatu zuten oraindik ez direla hasi harrobia berreskuratzeko lanak egiten.

Ez dute ulertzen zergatik EAJk, EAren PSE-EEren eta PPre laguntzarekin, luzatu egin gura duen esplotazioa. Gaineratu zuten harrobiendako zatiko planik egongo balitz, San Josepe itxita egongo litzatekeela, herritarrengandik geru egotearren. Horren harira, San Josepeko auzotarrek aurkeztutako kexuen berri eman zuten (zarategatik, harriak jaustegatik), eta salatu zuten, orain arte, udal gobernu batek ere ez dietela jaramonik egin. Era berean, Fagor Arrasatearen kasua ere aipatu zuten; adibidez, behin, harri batek apurketa dezente eragin zituen-eta lantegian.

Hiru langile silikosiarengatik gaixorik egotearren kezkarik ez duela erakutsi harrobiak. Hori ere salatu zuten. Eta, Silikosiaren Institutu Nazionalaren ikerketa batek erakusten duela langileen baldintzekiko ez dutela legearen esana betetzen. Oro har, harrobia zabalik edukitzeko erabakia arrazoi ekonomikoetan oinarritu zuten. Eta bukatzeko, harrobia ixtearen aldeko sinadurak batzen hasiko direla iragarri zuten.

LABUR

Hauteskunde-mahaietan egon behar duten arrasatearren izenak zozketatuko dituzte

Udalek martxoaren 14tik 18ra arte dute hauteskundeetan mahaietan egon behar dutenen izenak zozketatzeko. Arrasatekoak osoko bilkura berezia egingo du; astelehenean izango da, 09:00etan. Guztira, 297 lagun izenak atera behar dituzte. Izan ere, herriaren 63 mahai ipiniko dituzte eta mahai bakoitzean bederatzetako lagun egon beharko dute: presidentea eta bi kide gehi haien ordezkariak. Egokitzen zaienei etxera bidaliko diete abisua, lehenbailehen.

HEZKUNTZA/ 0 eta 2 urte artekoendako zerbitzua

Goieskolak 0 eta 2 urte bitarteko zerbitzua eskaini ahal izango du laster

UBANE MADERA / ARRASATE IRRATIA

Arrasateko Udalak onartu egin du Haurreskolak partzuegoan sartzea. Horrek esan gura du 0 eta 2 urte arteko hezkuntza zerbitzua eskainiko duela eskola publikoak. Edozelan ere, oraindik ez dute data zehatzik ezarri. Partzuegoaren esku dago hori.

Martitzenean, hilak 10, batzarra egin zuten Udaleko ordezkariak eta herri eskoletako gurasoak eta arduradunak. Hala, batzarrean alkateak jakinarazi zenez, Aretxabaletako Pausoka elkartearekin egin gura zuten akordioak aurrera egin ez duela-eta, erabaki dute Eusko Jaurlaritzak sortutako Haurreskolak izeneko partzuegoan sartuko direla. Ignazio Lakuntza alkateak Arrasate Irratiari zera esan zion: "Azken batean helburua da eskaintza hori bi sareen bitartez egitea: sare publikoaren eta sare pribatuaren bitartez; eta Pausokaren gaineko gure proposamenaren bitartez lortu ez dugunez, erabaki dugu partzuegoan sartzea dela konponbidea".

DATORREN URTE HASIERAN

Edozelan ere, hartutako erabakia ez da behin betikoa. Izan ere, oraindik udalbatzarrak onespina eman behar dio. Hala ere, EAJ eta EA alderdiek egitasmoaren alde bozkatuko dutenez, aurrera egingo du.

Hori bai, 0 eta 2 urte arteko zerbitzu berria abiarazteko data zein izango den ez dute zehaztu. Partzuegoa arduratzen da horre-



Aspalditik dator 0-2 urteko hezkuntza eskola publikoetan bermatzeko eskaera.

kin, eta lehenasunen arabera erabakitzen du herri bakoitzean noiz hasi. Dena dela, bai Udalen asmoa bai eta eskola publiko ordezkarien asmoa da 2005-2006 ikasturterako eskaintzea 0 eta 2 urte arteko hezkuntza zerbitzua. Hori bai, aurreneko hiruhilabetea ipini dute data moduan.

BEDOÑABEN IZANGO DA

Herri eskolako ordezkariak dago-kenez, pozik hartu dute EAJ eta

EA alderdiek hartutako erabakia, urte askoan egiten ibili diren eskaerari erantzuten dio-eta. Goieskolako zuzendari Agurtzane Barrutiak Arrasate Irratiari adierazi dio egitasmoak aurrera egingo duela uste dutela, inolako arazo barik. Haren esanetan, halako kasuetan sortzen den arazo handiena beharrezko ikasgelak egokitzeko lanak egitea izaten da. Arrasaten aurrekusi dute Bedoñabe eraikineko gela batzuetan eskainiko dutela zerbitzua.

"Arrasateko kasuan ez dugu arazorik, badagoelako espazioa Bedoñabe eraikinean".

Horren harira, adierazi digute ahaleginak egingo dituztela lanok aurten hasten; hala, zerbitzu berria datorren urtean eskaintzearen aldeko apustua egingo dute.

Gauzak horrela, Umezainzan eta Mesedeetakoan ikastetxeaz gainera, laster, eskola publikoan ere izango da haurtzaindegi zerbitzua.

Kartelak ipintzeko eta pintadak egiteko panelak ipiniko ditu Udalak herrian

Kartelak eta pintadak margotutako paretan egoera konpondu nahian, Adierazpen Libreko Gune Jasangarriak sortzeko proiektua onartu du oraingo asteen Gobernu Batzarrak. Horren arabera, panelak ipiniko dituzte herriko zenbait puntutan. Eta gero, panelon gainean ipini beharko dira orain arte paretetan ipintzen ziren kartelak-eta. Pintadak eta muralak ere panel horietan egin beharko dituztela gaineratu digute Hirigintza Saitetik.

HASTEKO, BOST LEKU

Hain zuzen ere, adierazpen libreko guneak sortzeko proiektua oso-osorik onartu badute ere, zatika egingo dute. Hala adierazi dio proiektuaren arduradun Luis Etxeberriarteun zinegotziak

Arrasate Irratiari. Hain zuzen ere, oraingo asteen, aurreneko zatiari dagokion prozedura hasi dute, lanok negoziatio bidez esleitze proiektua, hain justu.

Lehenengo zati horren arabera, bost puntutan ezarriko dituzte panelak: Ferreriasen (Portaloitik gertu), Zurgin kantoian (arkuan), Olarten (Arbolapetatik gertu), Araba etorbidean (autobus geltoki inguruan) eta Udala plazan, hain zuzen ere. Gero, erabileraren arabera erabakiko dute hortik aurrera zenbat ipini. Era berean, mota askotariko panelak ipiniko dituzte, leku bakoitzaren beharren arabera. Asko jota hiru hilabetean egin beharko dituzte lanok. Guztira, 14.300 euro inbertituko dituzte lehenengo zatiko lanetan.



Kartelak eta pintadak paretetik kendu eta paneletan ipintzeko proiektua egin dute.

LABUR

Sexualitate ikastaroa eta gizonendako lantegia

Martxoaren 11n bukatuko da Emakume Txokoak gizonendako antolatu duen lantegirako izena emateko epea. Maskulinitate eredu berriak landuko dituzte lantegi horretan. Eta martxoaren 13an izango da, zapatua, 10:00etatik 13:30era. Bestalde, emakume gazteendako sexualitate ikastaroa ere antolatu dute Emakumeen Txokoan. Martxoan izango da, astelehenetan, 16:00etatik 19:00etara. Parte hartzeko martxoaren 4a baino lehen eman behar da izena.

Ezker Batuak bere plana aurkeztuko du Arrasaten

Datorren eguaztenean, hilak 18, Atxikimendu Libreko Federalismoa aurkeztuko du Ezker Batuak Arrasaten. 19:00etan hasiko da ekitaldia, udaletxeko osoko bilkuren aretoan. Hizlariak Sabino Zubiri (dokumentuaren erredakzioan parte hartu zuen) eta Ander Rodriguez zinegotzia izango dira.

Ludotekako itoginak konpontzeko azkeneko abisua


Okendoko ludotekan dauden itoginak direla-eta, Gobernu Batzarrak erabaki du azkeneko errekerimendua egitea hango auzokideei itoginak konpon ditzaten. Okendo eta Azoka kaleetako 4. zenbakiko auzokideek konpondu beharko dituzte itoginak, haien patioetatik sartzen zaie-eta ura ludotekakoei. Hala, oraingo honetan ezer egiten ez badute, Udalak, ludotekaren jabe den neurrian, zer bide jarraitu erabaki beharko du.

Kamioi batek kolpea eman zion emakume nagusi bati

Astelehenean, hilak 9, istripua izan zen Arrasate pasealekuan. Lekukoek kontatutakoaren arabera, hango zebra bidean, kamioi bat geldi zegoen, jendea pasatzeko zain. Guztiak pasatu zirela uste zuenean, aurrera egin zuen kamioilariak, baina urte hartan emakume bat sartu zen zebra bidera. Kolpea eman zion kamioiak eta lurrera bota zuen emakumea. 77 urteko emakumea zen. Zenbait hezur apurtu zitzaizkion kolpearen ondorioz, baina, bestela, ez zuen ezer larririk izan.

GESALIBARKO JAIETAN GURA BESTE KOPLA ABESTU ZITUZTEN

Gesalibarko jaiak eguenean hasi bazituzten ere, egubakoitzean eta zapatuan egin zituzten ekintza gehienak. Egubakoitzean bertso afaria egin zuten Lizaso eta Egaña bertsolariekin batera. Esan barik doa bi bertsolari horiek mahaiaren bueltan jarriz gero giro ona ziurtatuta dagoela. Afarian zehar izandako giroari eusteko ardura Txinparta taldeak izan zuen, eta horiek ere ez zuten kalerik egin. Egun handia, baina, zapatua izan zen. Auzokoak etxez etxe eta baserriz baserri ibili ziren kantuan. Santa Ageda bezperan irten beharrean, Gesalibarren zapatuan irteten dira abestera. Ohiturak apur bat aldatu diren arren, jai-gogoak bere horretan jarraitzen du. Gura beste koplak abestu eta gero, elkartearen afaria egin zuten denek. Afaldutakoak on egiteko, gauean rock kontzertua izan zen.



BETIZUKO IZARRAK ARRASATEN IZAN ZIREN ASTEBURUAN

Uarkape pilotalekua gainezka egon zen zapatu arratsaldean Betizu taldeak eskaini zuen kontzertuan. Arizmendik antolatutako kontzertuan Uarkapera hurbildu ziren neska-mutikoak sekulako egonezina-ekin izan ziren, Betizuko izarrak ondo-ondoan izan zituzten-eta. Karla, Uxue, Mikel, Leire, Ainara eta Jonek osatzen dute Betizu taldea, baina Uxue bergararra ez zen kontzertuan izan, gaixo zegoelako. Hala, taldekideek Uxeri eskaini zioten kontzertua.



ERRUGBIA

Arrasatek bihar hasiko du igoera fasea, Gaztediren kontra, Gasteizen, 17:00etan

David Jauregiren mutilek Gaztediren eta Santanderko Unibertsitatearen kontra jokatuko dute igoera fasean

XABIER URZELAI

Igoera faserako sailkatuta eta hainbat astean deskantsua izan eta gero, Arrasate Errugbi Taldeari lanera bueltatzeko ordua iritsi zaio. Eta, mondragoetarrak jokatzen dazuten garaipena, bestela, Zarautzek alde handiarekin hasiko zuten eta igoera fasea, lau puntuko aldearekin, hain zuzen ere.

Arrasate Errugbi Taldeak lau norgehiagoka jokatuko ditu igoera fasean: bi Gaztediren kontra eta beste bi Santanderko Unibertsitatearen kontra. Zarautz ere multzo berean dago, baina Arrasatek ez du talde horren kontra jokatuko, aurreko fasean jokatuta zuten eta elkarren kontra.

HASIERAN, BERDINDUTA

Lau talde horietako bakoitzak bi punturekin hasiko du igoera fasea. Bi puntu horiek aurreko fasean eskuratu zituzten, baina oraingo faserako baliagarriak dira. Hala, lau taldeek egoera berean hasiko dute igoera fasea,

abantaila barik. Aurreko fasean Arrasatek eta Zarautzek lehia polita izan zuten. Zarautzek justu-justu irabazi zuten Zarautzen, eta Arrasatera etorri zirenean mondragoetarrek erraz irabazi zuten. Arrasatek beharrezkoa zuten garaipena, bestela, Zarautzek alde handiarekin hasiko zuten eta igoera fasea, lau puntuko aldearekin, hain zuzen ere.

LIGA NAZIONALA HELBURU

Denboraldi amaieran Euskadiko errugbi txapelketak berregituratu egingo badituzte ere, Arrasatek Liga Nazionalen jokatzeko du helburu. Horretarako, baina, bide luzea dute egiteko. Liga Nazionala ere Euskal Herriko taldeek osatuko lukete, baina Santanderko eta Zaragozako taldeak ere izango dira.

Helburu polita bada ere, argi dago horrelako liga batean jokatzeak esfortzu handia eskatzen duela. Beste behin, errugbi taldeak daukana emango du, eta kontran, ezer gutxi jasoko dute ordainetan.



OLAIA MONDRAGON

Joan den zapatuan Arrasateko gazte mailako taldeak erraz irabazi zion ordura arteko liderrari, Atletico San Sebastian taldeari.

FOTOKIROLA



Mondrako neskek 1-1 egin zuten Elgoibarren kontra

Joan den astean Mondrak eta Elgoibarrek norgehiagoka parekatua jokatuta zuten Atxabalpen. Bi talde horiek sailkapenaren erdialdean daude, Elgoibar Mondra baino apur bat gorago. Arrasateko jokalariek ondo egin zioten aurre Elgoibari, baina Loitiren eta Zabaloren neskek ez ziren hiru puntuak lortzeko gai izan. Gainontzeko kategorietan parekotasun handia dago, baina nesken Liga Txapelketa oso bestelakoa da. Jokalarien adinak eta taldearen beteranotasunak garrantzi handia du, eta Arrasatek oso talde gaztea dauka. Hala ere, mondragoetarrak daukatena ematen dabilta, atzeko postuetatik urrundu guran. Urki, Gasteiz eta Aguraingo taldeek baino 15 puntu gehiago ditu Mondrak. Hori bai, goialdean dauden taldeak harrapatzea dagoeneko ezinezkoa da. /X.U.

Mondra: hamar gol jaso eta azken hiru partiduak galdu

X.U.

Preferente mailako Mondra Liga Txapelketa honetako bolada txarrenari aurre egin guran dabil. Josu Zubiaren mutilek azken hiru partiduetan hamar gol jaso dituzte; horietako asko partidu hasieran.

Hondarribiaren kontrako partidua jokatzen hasi aurretik, lehenengo minutuetan kontuz ibili behar zutela argi izanda zelairatu ziren Mondrako jokalariek. Horrela ere ez. Lehenengo hamabost minutuak pasa zirenerako, Mondra 2-0 zen atzetik. Lehenengo zatian ez zen gol gehiago izan, baina bai bigarren zatian.

Markagailuko aldeaz ahaztu, eta Arrasateko mutilak dakiten moduan hasi ziren lanean. Ina 2-1eko egiteko gai izan zen, eta Muruak norgehiagoka berdindu zuen 80. minutuan. Puntu bat Arrasate aldera ekarriko zutela uste zutenean, 92. minutuan Hondarribiako Arrazola erdilariek sekulako gola egin zuten. Falta jaurtiketa baten baloiari ederto jo, eta Calvok ezer gutxi egin ahal izan zuen (3-2).

BADUTE ZER HOBETU

Azken partiduetan izandako emaitzak ikusita, argi dago Josu

Zubiaren mutilek badutela zer hobetu. Zestoan lehenengo ordu erdian hiru gol jaso zituzten. Touringek ere lehenengo zatian erabaki zuten partidua, eta Hondarribia hamabost minutuan bi gol egiteko gai izan zen.

Taldeak, emaitza kontran izanda ere, gora egiteko gai dela erakutsi du. Zestoan gutxiatik ez zuten partidua berdindu, eta Hondarribian berdindu ere, 92. minutuan gola jasota esku hutsik bueltatu ziren Arrasatera. Badi-rudi Arrasatekoek lana behar den moduan egiteko lehenengo bi gol jaso behar dituztela. Helburua mailari eustea bada ere, norgehiagoka gehienetan erakutsi duten maila erakutsita, Mondraren nahia goiko postuetan egotea da, baina taldeak hobetu egin behar du defentsa lanetan. Eta, arazoa ez da taldearen defentsa, taldearen defentsa lana baino. Eta baita norgehiagokako lehenengo minutuetan taldeak daukan jarrera ere.

HASIERATIK GOGOR

Oraingo asteburuan Real Union izango da Atxabalpen. Arrasatek ezin du gehiago barkatu; taldeak konfiantza berreskuratu behar du eta dakien moduan jokatuta. Ea bihar markagailuan atzetik ibili behar ez duten.



Bea

Otalora 21. Tel: 943 79 12 05
ARRASATE



Lore

Olarte 10. Tel: 943 79 52 50
ARRASATE



Angela

Ferrerias 35. Tel: 943 79 88 23
ARRASATE



Elkoro Expert

Olarte 20. Tel: 943 77 08 28
ARRASATE



Mayte

Otalora 18. Tel: 943 77 14 65
ARRASATE



Hika


Olarte 2. Tel: 943 79 98 06
ARRASATE



Amagara

Erdiko kale 54 behe. Tel: 943 79 09 09
ARRASATE

EZETZASMATU



ARTXIBOA

Zer dabilta eraikitzen argazkiak erakusten duen lekuan?
Arrastoa: gaur egun haren izena eta irudia oso ezagunak dira.

Super BM

Super BMk emandako **30 euroko erosketa-txartela** zozketatuko du ARRASATE PRESSEK asmatzaileon artean!

ERANTZUNA

IZEN-DEITURAK

TELEFONOA

Ekarri txartela **MARTITZEN ARRATSALDEAN**
ARRASATE PRESSERA!

La Española oliba-olioa
0,4º, litro bat

2,69€ 448 pta.

Super BMn beti eskaintzarik onenak!

AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA

ARACELI FUENTESrendako izan da 30 euroko
erosketa-txartela. Zorionak, Araceli!
Galderen erantzun zuzena:
55-77 taldea zen.

ARRASATEKO HISTORIA

Garro jeneralaren omenezko kalearen gainekoa

'MONDRAGON SUS CALLES' / J. LETONA

Araba etorbidetik sartzen da Garro Jenerala kalera, eta auzoko dorreetaraino iristen da. On Jose de Garro Artolaren izenean ipini zioten izena San Andres auzoko kale horri. 1623an bataiatu zuten Arrasateko parrokiari On Jose de Garro. Erdiko kaleko 26. zenbakian bizi izan zen. Aita eskoriatzarra zuen, Leinzko Garrotarren familiako Domingo de Garro. Ama, berriz, Aramaioko Azkoaga auzoko Maria Ascension Artola. On Jose jaio eta gutxira hil zitzaion ama. Berriz, On Jose de Garroren aita Arrasateko udaletxean zebilen sasoi hartan. Era berean, Frantzia Espainiarekin gerran zegoen; hala, frantsesek Hondarribia hartu zuten, eta haiek bidaltzeko sortutako armadan parte hartu zuen On Jose de Garroren aitak. Hantxe hil zuten. 14 urte zituen semeak. Eta aukeratu zuen Ameriketara joatea. Hala, 1638an Espainia Berrira abiatu zen.

MUNDUAN BARRENA

20 urte baino gehiago egin zituen erregearen zerbitzura munduko zenbait lekutan: ia



UBANE MADERA

Araba etorbidetik sartzen da Garro Jenerala kalera; auzoko dorreetaraino iristen da.

hiru urtez Yucatanen egon zen. Besteak beste, alferiz izendatu zuten han. Beste bost urtez Flandesko estatuetan ibili zen. Zortzi urte pasatxoan Kataluniako armadan jardun zuen. Han, sarjentu nagusi izendatu zuten, besteak beste. Eta

On Jose de Garroren aita Hondarribian hil zen; frantsesen kontrako borrokan zauritu zuten

Galiziako armadan ere ibili zen. 1668ra arte ibili zen modu horretan.

ERREGINA-GUARDIAKO SARJENTU

Urteak geroago, 1669an, Felipe IV.a erregearen alargun Maria Ana de Austria erregina

agintariak erabaki zuen erregina-guardia bat sortzea. On Jose de Garro arrasatearra erregimentuko sarjentu nagusi izendatu zuten (1669an) eta Santiagoren abitua eman zioten, karguari garrantzi handiagoa emateko. Horrez guztiaz gainera, handik gutxira gobernadore izendatu zuten, Tucuman probintziakoa (Peru), 1672an. Ameriketara zegoela, handik bost urtera, 1678an Buenos Airesko gobernuaren ardura hartu zuen. Indiarrei armak erabiltzen utzi zien lehenengoa izan zen. Sei urte geroago, Txileko gobernuaren ardura hartu zuen, 1692ra arte. Bi urte geroago Eskoriatzara itzuli zen, atsedean hartzerako. Lau urte egin zituen han. Izan ere, 1696an Gibraltarko gobernadore izendatu zuten eta 1701ean Gipuzkoako kapitain jeneral. Donostian hartu zuen kargua.

ERREGINA-GUARDIAKO SARJENTU

Baina ordurako ahul zegoen. Hala, 1702ko urrian hil egin zen. Donostiako San Vicente parrokiari ehortzi zuten. Testamentuan dirua utzi zuen Arrasateko hiru komentuendako eta parrokiarendako.

ERRETRATUZAHARRA

Gizonezkoen koadrila ikusgarria

Makina bat lan eman digu oraingo asterako aukeratu dugun argazki zaharrak. Eta hala eta guztiz ere, ez dugu lortu jakiterik ez noizkoa den, ez non dagoen aterata, ezta argazkiko gizonezkoen koadrila zer dela eta elkartu zen egun hartan. Edozelan ere, badirudi bazkariren batean-edo ibili zirela; janzkerak (guztiak antzera samar, alkandora zuria dutela) eta gizonezko batzuek dituzten puruek, behintzat, halako zerbait erakusten dute. Bestalde, argazkia ikusi dutenek esandakoaren arabera, oso antzinakoa da.

Kontuak kontu, eta lanak lan, argazkian agertzen diren guztien izenak lortu ditugu, gure berriemaile finei esker. Eta ez da gutxi.

Hala, kontatu digutenez, honako hauek agertzen dira behean eserita, ezkerretik eskumara: Manuel Gallastegi, L. Arrieta, Lorenzo Urrutia, Angel Arana, Pablo Arizabaleta eta Juan Jose Ernabide.

Bigarren ilaran, berriz, zutik, ezkerretik eskumara honako hauek



daude: Segundo Zeziaga *Osiña*, Juan Barrutiabengoa (Arbe baserrikoa), Jesus Narvaiza, Makatx izeneko arabar bat (apopilo egon zen Eugenio Garai arrasatearraren etxean), Eugenio Garai bera, Julian Arantzabal, Francisco Gorosabel *Patxiko* (Antoña baserrikoa), Juanito Gorosa-

bel, Gregorio Garai, Ricardo Gorosabel, Alejandro Urrutia, Eusebio Lizarralde, Juan Jose Etxebarria eta Angel Uribesalgo.

Eta gorenako ilaran, ezkerretik eskumara honako hauek daude: Pablo Etxebarria (Otalora baserrikoa), Eduardo Urrutia *Saburdi*, Pako

Uribetxebarria, Joxe Sagasta, Joxe Gordobil, Felix Zeziaga *Osiña*, Francisco Mendikute eta Sabino Garai.

Argazkia: Sara Sagasta.


Informazioa: Torrepe elkarteko lagun batzuk eta Simon Arregi eta Benito Barandiaran.

Urtea: ezezaguna.


NOLAALDATUDIRENGAUZAK

Ferixalekuko pilotalekua edo Uarkape

Ezkerreko argazkia Ferixalekuko pilotalekuaren maketa zen. Javier Ortega arkitekto bilbotarrak egin zuen maketa hori. Alderdi abertzaleak proiektu horren alde azaldu ziren, baina sozialistendako garestiegia zen (330 milioiko aurrekontua zuen). Azkenean, baina, beste proiektu bat onartu zuten. Eta hor ere desadostasun politikoko izan ziren tartean.



≈ 1989 Ferixalekuko pilotalekuari izena jartzekoan ere eztabaida asko izan ziren: pilotari izandako baten izena, lekuaren izena...




2004 Uarkapeko pilotalekuak aukera handiak eskaintzen ditu. Gainera, eskalatzailleendako txoko ere badago, boulderra, hain zuzen.

**Mobiliario
ARENZA**
- ALTZARIAK
- DISEINUA
- APAINKETA
Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA

**UGARAN
jatetxea**
Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE

arbolapeta
ginko
arrasate
egin zure aukera

**Taberna
Berri
jatetxea**
Durana 26
ARETXABALETA
Tel. 943 79 20 67



Mesedeetako Andra Maria

IKASTETXEA

943 79 27 73

ARRASATE

Jose Luis Iñarra pasealekua
posta-e: mercedikas@terra.es

Haur Hezkuntza
0-2 urte

67€ hilean



Lehen Hezkuntza



Haur Hezkuntza
2-6 urte



eredua **D**



DBH

2004-2005

Matrikulazio epea:
otsailaren 16tik 27ra.

Orain

**Debagoiena
esku-eskura**

Goiena.net

Debagoieneko ataria Interneten



zure herriko albisteak sarean • eztabaidak • agenda • ...

Edertasun gida



ILE APAINDEGI MISTOA

iaran

Zerrajera 1.
Tel.: 943 79 81 79

Ordutegia: 09:30-12:30 14:30-19:30 / Barikuetan ez dugu etenik egiten eguerdian
zapatuak: 08:00-14:00

BITXORI

ile apaindegia

Erdiko kale 52
Tel.: 943 79 88 32

Maizatz

ILEAPAINDEGIA

Antso Abarka, 3 bajo · Musakola
ARRASATE · TEL. 943 79 58 78

JADE

ILEAPAINDEGIA

Maalako Errabala 21-B
ARRASATE
Tel.: 943 77 16 31

ILEAPAINDEGIA

virginia.L

MISTOA

Lapurdi 3. Zigarrola.
ARRASATE
Tel.: 943 79 65 65

AUSART

Ile apaindegi mistoa
Estetika zentroa
Txaro Carrizo

Iturriotz kalea 24. Tel.: 943 77 30 60
943 77 21 58

ILEAPAINDEGIA

ILEA

UNISEX

Lore

Olarte 10 · ARRASATE · 943 79 52 50
Lurrindegia eta estetika zentroa

KORA O'NEAL Aija HR L'ORÉAL PARIS BICOTHERM VALMONT